

III - BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

EUSKO JAURLARITZA

EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGU SAILA

Arabako Lurralde Ordezkaritza

Industria Auxiliar Alavesa, SA (Mubea-Inauxa) enpresaren hitzarmen kolektiboaren akordio partzialaren akta

Ebazpena, Ekonomia, Lana eta Enplegu Saileko Lan eta Gizarte Segurantzako Arabako lurralde ordezkariarena. Honen bidez ebazten da, Industria Auxiliar Alavesa, SA (Mubea-Inauxa), hitzarmen kolektiboaren akordio partziala inskribatu eta argiataratzea. Hitzarmenaren kodea 01000802011981.

AURREKARIAK

Aurkeztu da, ordezkariak honetan, negoziazio batzordeko enpresari ordezkariak eta ordezkari sozialek, sinatu zuten akordio partzialaren lan hitzarmen kolektiboaren testua.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa. Urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 90.2 artikuluan aurreikusitako eskumena Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailaren Arabako lurralde-ordezkaritzari dagokio Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 5eko 323/2024 Dekretuaren 18.2.g artikulua arabera.

EBATZI DUT

Lehenengoa. Euskadiko Lan Hitzarmen eta Akordio Kolektiboen eta Berdintasun Planen erregistroa, akordio partzialaren hitzarmen kolektiboa Arabako lurralde-sekzioa inskribatzeko agintzea eta aldeei jakinaraztea.

Bigarrena. ALHAOn argitara dadin xedatzea

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urriaren 2a

Arabako lurralde ordezkaria
IBON LOPEZ ALDAZ

**Industria Auxiliar Alavesa, SA (Mubea-Inauxa) enpresaren
hitzarmen kolektiboaren akordio partzialaren akta**

Gaur langileen legezko ordezkariak eta Amurrioko lantegiko Mubea-Inauxako zuzendaritza bildu dira, eta ondorioz:

Adierazten dute

2025eko urtarrilaren 22tik gaur arte, hainbat bilera egin dituzte langileen legezko ordezkariak eta enpresako zuzendaritzak, enpresako hitzarmenaren artikulak aldatzen dituzten akordioak lortzeko borondate irmoarekin. Horretarako:

Erabaki dute

1. Industria Auxiliar Alavesa SAre (Mubea-Inauxa) indarreko hitzarmen kolektiboa, 2022ko abenduaren 26ko ALHAOn argitaratua eta 01000802011981 hitzarmen-kodearekin, beste batekin ordeztu ez den bitartean, ultraaktibo egongo da.

2. Aurrekoari kalterik egin gabe, alderdiek soldatak eguneratzeko akordio partziala edo gai zehatzekoa lortu dute, eta akordio honen I. eranskinean jasotzen da.

Aurreko hitzarmeneko I. eranskinean jasotako kontzeptuetarako soldata-igoera, tauletan finkagarria, honako hau izango da:

2025. urtea: Estatuko 2024ko urteko KPIa (ehuneko 2,8) + 125,00 euro lineal.

2026. urtea Euskal Autonomia Erkidegoko 2025eko KPIa.

Eta jorratzeko beste gairik ez dagoenez, bilera amaitutzat eman da eta dagokion akta egin da. Akta irakurri ondoren eta ados dagoela adierazi ondoren, akta sinatu da Amurrión, 2025eko irailaren 8an.